

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

OGASUNA

Aurrekontuak

2016ko ekitaldian — kreditu-transferentzia egin eta konpromiso-kreditua sortuz— aurrekontu-aldaketa egiteko dosierrari behin betiko onespena ematea

3/2004 Foru Arauan xedatutakoaren ildotik, eta ez denez inongo erreklamazio edo oharpenik egin 2016ko ekitaldian aurrekontu aldaketak egiteko dosierraren hasierako onspenaren kontra, behin betiko onetsita geratu da ondoren adierazten den aldaketa:

6COMPRO dosierra, bi konpromiso-kreditu sortzeko:

1- Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena, tranbia unibertsitatearen eremura helarazteko, urteko hauetan banatuta:

2017: 1.139.625,00 euro

2018: 1.139.625,00 euro

2- Eusko Jaurlaritzaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena, BRTrako eta azpiegituretarako, urteko hauetan banatuta:

2017: 2.500.000,00 euro

2018: 2.500.000,00 euro

2019: 2.500.000,00 euro

Eta kreditu-transferentzia, bi partida sortzeko, zenbateko hauekin:

Eusko Jaurlaritza, AFA eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena, tranbia unibertsitateraino luzatzeko: 50.000,00 euro

Eusko Jaurlaritza, AFA eta Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena, BRTrako eta azpiegituretarako: 10.000,00 euro

Vitoria-Gasteizen, 2016ko irailaren 6an

Alkatea

GORKA URTARAN AGIRRE